

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Dirulaguntza eskaerak Eibar Merkataritza Gune Irekia Elkartearen bulegoan (Isasi kalea 26, behe) aurkeztuko dira:

- **Irailaren 1etik 14ra:** astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara.
- **Irailaren 15etik urriaren 29ra:** astelehenetik ostegunera, goizez: 09:00-14:00; arratsalde: 16:00-18:30. Ostiraletan: 08:00-15:00.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2021eko urriak 29 (hau barne). Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- DIRULAGUNTZAK IKASLEEI izeneko eskaera orria behar bezala beteta eta sinatuta, PEGORAn eskuragarri.
- Dirulaguntza kobratu nahi den aurrezki-libretaren edo bankuko kontuaren titulartasunari buruzko datuak egiaztatzeko dokumentua. Adin nagusiko ikasleen kasuan, kontuaren titulartasuna ikaslearena izango da. Ikasle adingabeen kasuan, kontuaren titulartasuna aitarena, amarena, tutorearena edo familia-harrera egiten duen pertsonarena izango da. Egiaztagiria gisa honako hauek onartuko dira: banku-laburpenaren edo libretaren fotokopia, banku-erakundeak emandako ziurtagiria, edo banku-erakundeak dirulaguntza eskaeran jarritako zigilua.
- Bankuko kontuaren titularra ikaslearen tutorea edo familia-harrerako pertsona izanez gero, hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
- **Eibarko dendetan 2021eko irailaren 1etik urriaren 29ra** bitartean egindako gastuen frogagiriak. Diruz lagundu daitezkeen gastu bakarrak hauek dira: arropak, oinetakoak kirol materiala, eskolarako gauzak (testuliburuak izan ezik), betaurrekoak eta lentillak. Fakturak, dirulaguntzaren titularraren izenean egon behar dira eta argi eta garbi azaldu behar dute zeintzuk izan diren erositako gauzak.
- Matrikularen egiaztagiria.
- 60,10etik gorako dirulaguntza eskatzen bada, Gizartekintza Sailak emandako idatzia, egiaztatzen duena 2021eko apirilaren 30ean ikaslea edo haren aita, ama, tutorea edo familia-harrerako pertsona/familia DBEren edo GLLn titularra zela edo Elikagai Bankua programan sartuta zegoela, eta, hala badagokio, baita ahaidetasuna egiaztatzen duen agiria ere (familia-liburuaren kopia, tutoretza-dokumentuaren kopia, adingabearen harrerako pertsona/familiaren agiriaren kopia).

Erreklamazioak egiteko, dokumentazioa aurkeztu izanaren egiaztagiria Eibar Merkataritza Gune Irekia Elkartearen bulegoan aurkeztea ezinbestekoa izango da.

INFORMACIÓN IMPORTANTE

Las solicitudes de subvención se presentarán en la oficina de la Asociación Eibar Centro Comercial Abierto (Isasi nº 26, bajo):

- **Del 1 al 14 de septiembre:** de lunes a viernes, de 8:00 a 14:00.
- **Del 15 de septiembre al 29 de octubre:** de lunes a jueves de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:30. Los viernes de 8:00 a 15:00.

Último día para presentar las solicitudes: 29 de octubre de 2021 (inclusive). Se deberá presentar la siguiente documentación:

- Solicitud de subvención AYUDAS A ESTUDIANTES debidamente cumplimentada y firmada, disponible en PEGORA.
- Documento justificativo de los datos de titularidad de la libreta o cuenta bancaria en la que se desea cobrar la subvención. En caso de estudiantes mayores de edad, la titularidad de la cuenta deberá ser de el/la estudiante. En caso de estudiantes menores de edad, la titularidad de la cuenta deberá ser del padre, de la madre, de el/la tutor/a o de la persona que ejerce la acogida familiar. Como justificantes se aceptarán: fotocopia del extracto bancario o libreta, certificado expedido por la entidad bancaria, o sello estampado por la entidad bancaria en la solicitud de subvención.
- En caso de que la persona señalada como titular de la cuenta, fuera tutor/a o persona/familia de acogida familiar del menor, la documentación que así lo acredite.
- Facturas de gasto realizado en comercios de Eibar entre el 1 de septiembre y el 29 de octubre de 2021 en ropa, calzado, material deportivo, material escolar (excepto libros de texto), gafas y lentillas. Las facturas deberán estar expedidas a nombre de el/la titular de la subvención, en la que consten de forma clara y concisa los productos adquiridos.
- Justificante de matrícula.
- En caso de solicitar la subvención por un importe superior a 60,10 €, escrito entregado por Servicios Sociales constatando que a 30 de abril de 2021, el/la estudiante o su padre, madre, tutor/a o persona de acogida era titular de la RGI o AES o estaba incluido/a en el programa Banco de Alimentos del Ayuntamiento de Eibar, y en su caso un documento acreditativo del parentesco (copia del libro de familia, copia del documento de tutoría, copia del documento de persona/familia de acogida del menor).

En caso de reclamación, será necesario presentar en la oficina de la Asociación Eibar Centro Comercial Abierto el resguardo de haber entregado la documentación.

LEGE OHARRA: DATU PERTSONALA BABESA

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak ikasleei zuzendutako dirulaguntzen kudeaketari euskari informatikoa eskaintzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa (PEGORA). Telefonoa: 943- 70 84 00. Emaila: pegora@eibar.eus

Jakinaren gainean nago, legez:

- Nik emandako datuak goian adierazitako tratamenduan sartu eta zehaztutako helbururako erabiliko direla.
- Emandako datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak erabili ahal ditudala posta bidez, elektronikoki (www.eibar.eus) edo PEGORara (Untzaga plaza 1) joanda.

ADVERTENCIA LEGAL: PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de dar soporte informático a la gestión de subvenciones destinadas a estudiantes, en base al consentimiento otorgado por el/la interesado/a y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Oficina de Servicio a la Ciudadanía (PEGORA). Teléfono 943-70 84 00. Email: pegora@eibar.eus

Me doy por advertido/a legalmente de que:

- Los datos facilitados se integrarán en el tratamiento de referencia y se utilizarán para la finalidad indicada.
- Puedo ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de datos facilitados a través del correo, electrónicamente (www.eibar.eus) o presencialmente en PEGORA (Untzaga plaza 1).